

LUA

Legorretako Udal Aldizkaria

2017ko Maiatza _ 17 . zenbakia

- 2 LegorretAPP
- 5 Uema Tailerra
Euskara ikasten
- 6 Errenta aitortpena euskaraz
- 7 Gu ere bertsoan
- 8 Berdintasuna Zabaltzen
- 9 Ikastaroak
Pikuak Kalera
- 10 Errezeta
- 11 Agenda
- 12 Argazki zaharra



LegorretAPP

LegorretAPP: LEGORRETA NONAHI, ESKURA

Eskuko telefonoetarako aplikazioa garatu du Legorretako Udalak, ACV Multimedia taldearen laguntzaz. Espresuki Legorretarentzat garatutako aplikazioa da, geurea, aldatuz eta hobetuz joango dena. Herritarrekiko komunikazioa hobetzeko sortu da, herritarrekin hartu-eman azkar, zuzeneko eta hurbila izateko helburuz. Izan ere, udalak herritarrei albisteak, argazkiak, bideoak eta bestelakoak eskaintzeaz gain, herritarrek ere izango dute aukera udalari jakinarazpenak eta eskariak egiteko.

Aplicación del Ayuntamiento de Legorreta, creada para mejorar la comunicación con la ciudadanía, con el objetivo de mantener una relación rápida, directa y cercana con la ciudadanía. Además de ofrecer noticias, fotos, videos y mucha más información, la ciudadanía podrá enviar notificaciones al ayuntamiento.



Herritarrekin komunikatzeko orain arteko tresnen osagarri izango da aplikazio hau. Aukera hauek ematen ditu:

- **Albisteak:** Herritarren intereseko albisteak argitaratuko dira bertan.
- **Agenda:** Herriko agenda izango da, udalak zein herritarrek antolatutako ekintzena.
- **Argazkiak eta bideoak:** Herriko ekintzetan egin-dako argazki eta bideoak, karpetatari saikatu.
- **Sare sozialak:** Udalaren Facebook eta Twitter kontuak.
- **Idatzi udalari:** Konpondu beharreko altxarien edo bestelakoen jakinarazpena bidali ahal izango dio herritarrek udalari, bai eta eskari edo proposamenen bat egin ere.
- **Herriko taldeak:** Eragileen albisteak, argazkiak eta bideoak, modu ikusgarri batean emanak.
- **Erreserba gunea:** Udal azpiegiturak edo materialak zuzenean erreserbatzeko gunea.
- **Mapa turistikoa:** Herriko txoko interesgarrien mapa.
- **Garraio ordutegiak:** Garraio publikoaren ordutegia.
- **Telefonoak:** Telefono interesgarriak.
- **Eguraldia:** Eguraldi iragarpena.

Informazio pantaila

Herritarrei informazioa emateko pantaila bat jarri du udalak udaletxeko aurreko horman. Herriko agendaren berri izango dute herritarrek pantaila horren bidez, plazan bertan, aldian-aldian eguneratuta. Informazioa zabaltzeko ohiko bideen osagarri izango da pantaila.

Horrekin batera, bestelako informazio praktikoa ere eskainiko du pantailak: eguna, ordua eta tenperatura.



LegorretAPP

LEGORRETA NONAHI, ESKURA
DESKARGATU gure APP berria

Download on the App Store | Get it on Google play

Maiazaren 18an aurkezpena 19:00etan, udaletxean

udalapp

Ésta aplicación será complementaria con los medios de comunicación que dispone el ayuntamiento hoy en día. Ofrece las siguientes opciones:



- **Noticias:** Se publicarán noticias de interés para la ciudadanía.
- **Agenda:** La agenda de eventos organizados tanto como por el ayuntamiento como por la ciudadanía.
- **Fotos y videos:** Fotos y videos de Legorreta, clasificados por carpetas.
- **Redes sociales:** Cuentas de Facebook y Twitter del ayuntamiento.
- **Escribe al ayuntamiento:** Espacio para notificar al ayuntamiento de averías, desperfectos, etc., así como hacer peticiones y sugerencias.
- **Grupos locales:** Noticias de los grupos locales, presentadas en un modo visual.
- **Reservas:** Espacio para reservar locales y material del ayuntamiento.
- **Mapa turístico:** Mapa de lugares de interés del municipio.
- **Horario de autobuses:** Horario del transporte público.
- **Teléfonos:** Teléfonos de interés.
- **Tiempo:** Pronóstico del tiempo.

Pantalla informativa

Se ha colocado una pantalla informativa en la fachada del ayuntamiento. Su objetivo es que los legorretarras dispongan información actualizada, en la misma plaza, sobre la agenda del pueblo. La pantalla será complementaria a las vías habituales de comunicación.

También ofrecerá diversa información práctica: fecha, hora y temperatura del ambiente.

HAUR ETA GURASOEN TAILERRA



Uema Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak gidatuta, hizkuntza ohituren inguruko tailer bat egin dute 6 urtetik 11 urte bitarteko haur batzuek, euren gurasoekin batera. Izan ere, umeen ispilu dira gurasoak, eta garrantzitsua da umeen hizkuntza ohituretan ez ezik gurasoen hizkuntza ohituretan eragitea ere.

Gurasoekin, gai hauek landu dituzte:

- Arnasguneak
- Herri euskaldunen zein erdaldunen garapen soziolinguistikoa.

- Arnasguneetan hizkuntzaren gorabeherak aztertzeko gakoak.
- Legorretako datuak eta horien gaineko irakurketa.
- Norberaren hizkuntza aukeraketaren inguruko gogoeta.

Umeein, berriz, modu praktikoan, marrazki, abesti eta bideo bidez landu dute gaia.

Uema Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateko kide da Legorretako Udala, eta haren eskaintzak baliatuko ditu udalak, herrian euskararen erabilerak hobera egin dezan.

Taller para niños y niñas y padres y madres

Con la colaboración de Uema, Mancomunidad de Municipios vascoparlantes, se ha llevado a cabo un taller en relación a las costumbres lingüísticas. En el mismo han participado niños y niñas de entre 6 y 11 años.

Han trabajado los siguientes temas:

- Desarrollo sociolingüístico de vascoparlantes y castellanos.

- Claves para analizar la situación del euskera en las zonas vitales para su uso.
- Datos del municipio e interpretación de los mismos.
- Reflexión en torno a la elección lingüística personal.

EUSKARA IKASTEN, DOAN

Aurten, abian da AISA etorkinentzako euskara ikastaroa. Zortzi ikasle dabilta ikastaro horretan, eta horietako bi Gaineder diputazioaren etxean dauden nerabeak dira.

Horrez gain, hiru herritar Ordiziara joaten dira euskara eskolak jasotzera. Iaztik, udalak %100 ordaintzen ditu eskola horiek, betiere asistentzia %80koa bada.

Aprender euskera, gratuito

Está en marcha el curso para aprender euskara dirigido a las personas inmigrantes (AISA). Ocho son las personas que siguen el curso.

Además, tres legorretarras acuden a Ordizia a recibir clases de euskera.

El ayuntamiento ayuda en el 100% a estas personas, siempre y cuando la asistencia sea de un 80%.



ERRENTA AITORPENA, EUSKARAZ



Errenta aitorpena euskaraz egiteko kanpainarekin, herritarrek administrazioarekin dituzten harremanak euskarazkoak izan daitezten bultzatu nahi dute Uemak, udalek eta beste hainbat erakunde publikok. Izan ere, errenta aitorpena euskaraz eginda, administrazioaren euskalduntzea ere bultzatzen da. Errentaren gaineko aitorpena egiterakoan, zergadunek hainbat bide dituzte euskaraz egiteko, eta modu errazean gainera: lehen urratsetik zein hizkuntzatan egin nahi duten aukera dezakete, eta euskaraz egiteko ez dago aparteko zailtasunik.

Administrazioa euskalduntzeko duen eraginagatik, euskararen normalizaziorako bidean udalerrri euskaldunak egiten ari diren beste urrats bat da errenta aitorpena ahalik eta herritar gehienek euskaraz egitea. Urratsa sendoa izan dadin, ordea, herritarren babesa eta parte-hartzea beharrezkoa da, eta hautu horretan eragin nahi du aurtengo kanpainak, euskarak dagokion lekua izan dezan administrazio publikoan ere.

Errenta aitorpena egiteko hainbat modu daude, eta horietan euskeraren aldeko hautua egitea lortu nahi da kanpaina honekin.

Declaración de la Renta, en euskera

Gracias a la campaña para realizar la Declaración de la Renta en euskera, Uema, los Ayuntamientos y entidades públicas pretenden fomentar que los ciudadanos se comuniquen con la Administración en euskera.

Así pues, hay diferentes opciones de realizar la Declaración de la Renta, y esta campaña pretende que sea el euskera el idioma elegido en todas las modalidades.

HERRI IKASTETXEAN, 'GU ERE BERTSOTAN'

Ikastetxeetan bertsolaritza lantzeko proiektua da 'Gu ere bertsotan'. Euskal Herri mailan garatzen den proiektua da, eta 5. eta 6. mailako haurrek lantzen dute bertsolaritza ikastetxeetan.

Proiektuaren oinarri pedagogikoa Bertsolaritzaren curriculum Lehen Hezkuntza (Oiertzun: Lanku S.L, 2008) lanean biltzen da, eta bertan jasotzen ditu bertsolaritzaren ikastetxeetako lanketak haurren garapenari begira dituen helburuak, horiei loturiko edukiak, metodologia zein ebaluazio irizpideak. 'Gu ere bertsotan' proiektuaz, hala, bertsolaritza ikuspegi globalizatzaile batetik planteatuta, lau arlo lantzen dira: Hizkuntza, Kultura, Musika (ahotsa) eta Trebetasun Pertsonalak eta Sozialak.

Legorretan, Ugara eskolak eta udalak finantzatu dute proiektua, eta, guztira, 5. mailako 17 ikaslek eta 6. mailako 14 ikas-

lek parte hartzen dute. Irailaz geroztik, Unai Mendizabal bertsolaria dute irakasle (Zizurkil, 1992).

Aurtengo ikasturtean Legorretako ikasleekin aritu zara bertsolaritza lantzen. Zein helburu jarri dituzue?

Tira, oinarrizko helburuak bertsolaritzaren inguruko ezagutza ematea, bertsolaritza zer den ezagutaraztea, zer egiten den, eta, pixka bat, mundu honetara hurbiltzeko aukera ematea. Eta gero, hizkuntzarekin jolas egin, euskararekin jolas egin eta ondo pasatzea.

Zer moduzko harrera izan dute? Ezagutzen al zuten bertsolaritza?

Ona; talde nahiko euskalduna da. Gero, batzuek ezagutzen dute bertsolaritza, beste batzuek batere ez... Hala ere, nik uste bertsolaritza, oro har, gustura hartzen duten ikasgai bat dela.

Zer tresna erabiltzen dituzu lane-rako?

Bertsotzale Elkarteak baditu pare bat liburu. Baina batez ere bideoak erabiltzen ditugu. Gaur egun, gainera, ikasgelak ondo hornituta daude horretarako. Azkenean, hori da modurik egokiena bertsolaritza zer den ulertzeko.

Ikasturte amaierako emanaldiarekin amaitu duzue.

Bertoak prestatzen aritu dira gelan, eta gurasoen eta etortzen direnen aurrean emanalditxo bat eskaini dugu. Gelan idatzitako bertoak ikasi dituzte, antzerki bateko gidoia balitz bezala. Gelan ez dugu aukerarik izaten jendaurrekotasuna lantzeko, eta horixe landu dugu. Batez ere, kantatzeko moduari jartzen diogu arreta: bolumena, tonua, ahoskera, postura...



En la escuela, 'Gu ere bertsotan'

'Gu ere bertsotan' es un proyecto para trabajar el bertsolarismo en los centros educativos a nivel de Euskal Herria; está dirigido a alumnos y alumnas que cursan 5-6 curso de primaria.

Se plantea el bertsolarismo desde una perspectiva global; se trabajan cuatro aspectos: el euskera, la cultura, la música y las habilidades personales como las sociales.

Este proyecto ha sido financiado por el centro Ugara y el Ayuntamiento y en el mismo han participado 31 alumnos. Como profesor: Unai Mendizabal (Zizurkil, 1992).

BERDINTASUNA ZABALTZEN, BETAURREKO MOREAK JANTZITA

Legorretako Udalak Berdintasun Lantaldea sortua du, eta bertan dabiltza lanean udal ordezkari eta herritarrak. Apirilean ikastaro bat egin dute, taldekideek ez ezik, Gizarte teknikariak eta Kultur teknikariak, pixkanaka berdintasuna arlo denetan lantzeko eta ikuspegi hori udalean modu transbertsalean txertatzeko. Emagin elkarteak eman du trebakuntza saio hori.

Horrez gain, diputazioaren Berdinbidean programan lanean dabil udala, eta bertan parte hartzen dute, Gizarte teknikariak eta alkateak ez ezik, baita idazkariak ere. Aurtengo, berdintasuna pixkanaka-pixkanaka udal osora zabaltzeko asmoz, Berdinbidean programako teknikariek ikastaro bat emango diete udal langile guztiei.

Era berean, 2017-2018ko lan ildoetako bat hezkidetzaz izango da. Ugara herri ikastetxearekin batera landuko da, irailetik aurrera, Amelia Barquin Mondragon unibertsitateko irakasleak gidatuta.

Festak ere, berdintasunean

Herriko festa askotan, zoritxarrez, mota askotako erasoak izaten dira, eta, halakoetan nola jokatu jakiteko, protokolo bat landu du Berdintasun lantaldeak –taberna guztietan eta txoznetan egongo da eskura-. Hala ere, kontzientzia hartzea da garrantzitsuenak, halako egoerei aurre hartzea; horregatik, Azintzio bezperan, gaiaren inguruko informazioa zabalduko da, eta esku orri batzuk banatuko dira herri afari eta bazkarietan.



La igualdad, con gafas moradas

El grupo de trabajo para la Igualdad, formado por responsables políticos y ciudadanos, junto con los técnicos de Bienestar y Cultura, han participado en un curso impartido por la asociación Emagin. El objetivo: trabajar la Igualdad de manera transversal e integral.

Asimismo, durante el curso 2017-2018, uno de las líneas de trabajo será la coeducación. Este tema se trabajará conjunta-

mente con el centro educativo Ugara, bajo la dirección de Amelia Barquin, profesora de la Universidad de Mondragón.

Igualdad, también en fiestas

El grupo de trabajo para la Igualdad ha diseñado un Protocolo de actuación (se repartirá en todos los bares y txoznas) donde se recoge el modelo a seguir en caso de sufrir algún tipo de acoso.

PRESTAKUNTZA IKASTAROA ADINEKO MENPEKOAK ZAITZEN DITUZTEN FAMILIENTZAT

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikarako Departamentuko Sendian programaren barruan eta Legorretako Udaleko Gizarte Zerbitzuen laguntzaz, maiatzetik ekainera bitartean prestakuntza ikastaroa antolatu da adineko menpeko edota ezinduek zaintzen dituzten familientzat.

Ikastaro hau zaintzaileentzat eta zaintzaren ingurukoak izango da. Sei saio izango dira, doakoak, eta saio bakoitzean gai bat landuko da:

- 1.- Distress emozionala: arnasketa eta erlaxazioa lantzea.
- 2.- Emozioak identifikatu eta graduatzea.
- 3.- Pentsamendu eta emozioen arteko harremana.
- 4.- Emozioak jokaera disruptiboaren aurrean.
- 5.- Komunikazioa eta gaitasun sozialak.
- 6.- Genero identitate eta erantzukidetasun familiarra eraikiz arreta eta zaintza lanetan.

Curso de formación para familias cuidadoras de personas mayores dependientes

El Departamento de Política Social de la Diputación Foral de Gipuzkoa a través del programa Sendian, con la colaboración del Ayuntamiento de Legorreta, ha organizado unos cursos de formación para familias cuidadoras de personas mayores dependientes.

Este curso es para personas cuidadoras y trata sobre el cuidado. Los cursos serán gratuitos, y el contenido es el siguiente:

- 1.- *El distress emocional: ejercitar la respiración y la relajación.*
- 2.- *Identificación y graduación de las emociones.*
- 3.- *Relación entre pensamientos y emociones.*
- 4.- *Las emociones ante conductas disruptivas.*
- 5.- *Comunicación y habilidades sociales.*
- 6.- *Construcción de la identidad de género y corresponsabilidad familiar en la atención y cuidados.*

PIKUAK KALERA

Eusko Jaurilaritzak, Osakidetzak eta Legorretako Udalak bultzatuta, iazko urrian hasi ziren herriko jubilatuak astero-astero ibilaldiak egiten. Ostegun goizetan elkartzen dira, eta, taldeka herrian ibilbide bat egin ondoren, salda beroa hartzen duten euren elkarteetan. Astero, 30-40 pertsona inguru elkartzen dira, eta boluntario talde batek laguntzen die. Astero, txandaka, Ugarotarrak guraso elkarteak, Ongizate lantaldeak, Aldaietako kide batzuek eta etorkin talde batek laguntzen die. Bizi ohitura osasungarriak sustatzea da helburua, eta herritarren arteko harremanak sustatzea, bai jubilatuaren elkarteak kideen artean eta bai herriko gainerako taldeekin ere.

Apirilaz geroztik, gainera, eskolako haur batzuk, bi taldetan banatuta, egitasmoan parte hartzen ari dira, eta oso gustura dabilta elkarrekin. Ekaineko lau ostegunetan, proba gisara, soinketa irakaslea izango dute: luzapenak eta gorputza ongi mantentzeko ariketak erakutsiko dizkie. Azken egunean, ekainaren 22an, ikasturte amaierako festa egingo dute.

Hace ya un año que los jubilados de Legorreta, gracias a un programa impulsado por el Gobierno Vasco, Osakidetza y el Ayuntamiento, llevan realizando salidas semanales con el objetivo de fomentar hábitos saludables, además de ahondar en las relaciones entre los jubilados y también con el resto de entidades locales.

Además, desde abril, también están participando en la iniciativa varios alumnos de la escuela y valoran muy positivamente esta iniciativa.

En junio, los jueves, un profesor de educación física les mostrará ejercicios de estiramientos y de mantenimiento. El 22 de junio, darán por finalizado el curso, mediante una fiesta.



ERREZETA

Jubilatuen taberna - Rubio

Bakailaoa ajoarriero erara

Denbora: 45 minutu

Zailtasuna: Ertaina

Plater mota: Bigarren platera

OSAGIAK

- 500 gramo bakailao (gezatua eta xehatua)
- 3 ale baratxuri
- Tipulin bat
- Piper berde bat
- Piper gorri bat
- Kaiena piperra (1 edo 2)
- Etxeko tomate baso bat
- Olio
- Gatza
- Txakolina



NOLA PRESTATU:

Lehenik eta behin, baratxuri aleak eta kaiena piperra oliotan doratu. Behin kolorea hartzen dutenean, tipulina, piper berde eta gorriak bertara bota, 15 minutuz xuabe-xuabe erregosten uzten ditugularik. Ondoren, txakolin pixka bat nahastu, eta 3-4 minutuz eduki. Hori eginda, bakailaoa eltzera bota, eta su bizian eduki 4-5 minutuz. Azkenik, tomatea nahastu, eta 3-4 minutu pasatakoan, listo!!!

Gomendioa:

Ahal izanez gero, plater hau ardo txuri batez lagundu. Nire gomendioa, Godello (Lugo).

On egin!

MAIATZA

24-28 Azintzio jaiak

EKAINA

2 Musika Eskolaren ikasturte amaierako emanaldia

Arratsaldean / Herri Antzokian eta plazan

10 Sagardo eguna eta Erromeria

Arratsaldean, plazan

17 Corpus eguna

20 Pikuak kalera: amaiera festa

23 San Joan bezpera

Iluntzean / plazan

AGENDA



Herriko festetan, ekitaldi garrantzitsua izan ohi da playbacka. Ume zein helduek, lotsa etxean utzi, eta ikuskizun ederrak eskaintzen dituzte. Irudian, garai bateko playback saioa duzue, umeena, arratsaldeko saioa. 1991. urtean eta 1992an jaiotako haurrak ageri dira, baina ze urte ote da?